



Mintzola Fundazioaren eta Mikel Laboa Katedraren deialdia (2019) euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko Gradu Amaierako Lanen Saria

DEIALDIAREN XEDEA

Euskarazko ahozko kultur sorkuntzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko xedea du, beste helburu batzuen artean, hala Mintzola Fundazioak nola Mikel Laboa Katedrak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzaz giroaren testuinguruan.

Ikertzaile gaztea edo hasiberriaren urratsak garrantzizkoak dira; hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretatik abiatuta, **antzerkigintza, kantagintza, bertsolaritza, kontalaritza edo ahoz emateko sortzen den beste kultur adierazpide bat ikergai gisa aukeratu izana baloratzea** da deialdi honen helburua. Lehenengo urratsen garrantziaz oharturik, hain justu, deialdi honetan Gradu Amaierako Lanen kalitatea ebaluatu eta saritu da.

Denera 20 lan aurkeztu dira deialdi honetan. Denak irakurri eta aztertu ondoren, epaimahaiak Mikel Laboa Katedrak eta Mintzola Fundazioak bultzatutako I GRAL Saria ondorengo lanari ematea erabaki du:

*Ahoz gorako irakurketa eta kontaketa haur hezkuntzan: ahotsaren eta entzumenaren bitartez sozializatzeko esperientzia, egilea **Idoia Ilundain Iribarren** izanik.*

Donostia, 2019-11-28

Mikel Laboa Katedra eta Mintzola Fundazioa